

DEMOKRATIKO JOKABIDEA

Lan Deya 41 - 1968 Otsaila



Zenbaki onen beste orrialde batean, orain dela gutxi C.O.F.E. delakoak atera dituan erabakiak, argitaratzen dira. An aipatzen diranak garrantzi aundikoak iduritzen zaizkigu, eta oso konforme gaude bere sei puntoetan esaten dituztenakin. Punto danak naiko argiak gelditzen dira; era oietatik kanpo eztago demokratiko jokabiderik.

An esaten dana: sozialismoaren alde jokatzekin, iñalak egin bear dira, faszismoa egozteko, eta beren orde, demokratiko dan rejimena bat jartzeko. Sozialismoari lotzeak, au ez baldin ba du lortzen, faszismo-berri, kalakari eta demagojiko utsan gelditzen da.

Egia da, zeren azken denbora ontan, jende ugari ari da sozialismoari buruz idazten, itzegiten eta abar. Batzuek tutik ere ulertu gabe, azalezko planteamenduak egiten, gauzak, problemak aztertu gabe

uzten dituzte. Bidegabekeriak esaten, gero noski ezer ez egiteko; eta besteri egitera ez uzten. Beste batzuek; arpegi sasi-sozialista batekin azaltzen diranak, beren ideoloji usteldua obeki itsastu, finkatu dadin, ezer ez dakien artean.

Azken oiek, espainiako burgesia-txiki nazionalistak izugarrizko reboluzioak egiten dituzte; paperetan noski. Ba dirudi, biar goizean lur-ikara batekin asiko dala yazarkundo "sozialista". Olako pentsakizunak, ametskeri romantikoak dirala esaten da. Egia esan, guri sasi-romantikoak iduritzen zaizkigute, jokabide zuzena eta elburu garbia bai dute.

Planteamendu oiekin, aundikeri eta ametskeri oiekin, ba dakigu ez goazela inunera; ez rejimen demokratiko batera, eta are gutxiago sozialismo batera. Eta berek ere, ba dakite ondo orrekin lortzen dutena: euskaldunen buruetan naaste-borraste bat, eta demokraziaren bidean egin bear ziran benetako aurrerapenak, ez dirala egiten. Pentsa dezagun, zer-ikus ote duan onek sozialismoakin; guztiz farregarria da nola azaltzen diran sozialista eran, ezer ez egiten dutenak, ori da, dagon, faszismoa iraun-arazten dutanak.

Faszismoaren aurka egin bear ziran elkartzeko eta indartzeak, programa demokratiko batean, ez dira posible, reboluzio ikaragarriak planteatzen baldin ba dira. Lortzen demokratiko batzuek gabe, ez da faszismoa egozterik. Eta emen azaltzen dira: laborantzeko aldaketa, orrien autonomia "inmediata" deritzaiona, diru-biltzen aurka joera, demokratiko askatasuna, eta abar.

Gauza oiek, ez dira nola-nai azaltzen, indar batzuen izenean agertzen dira. Reboluzioak, dauden indarraren arabera egiten dira. Eta emen faszismoaren aurkako indarraren arabera egin bear da: Euzkadiko burgesia eta langillen klasea, Catalanako burgesia eta langillen klasea, eta Espainiako proletariadoa eta burgesia. Oiek dira, faszismoaren aurkako indarrak.

Batzuetan gainera, leen aipatu dugun burgesia txiki nazionalista dalakoaren partido sasi-sozialistak, bere planteamenduetan, esan dugun reboluzioa baino askoz gutxiago, eskeintzen eta eskatzen dute. Reboluzio demokratiko-burgesa deritzaionatik oso urruti gelditzen dira. Eta finkatzen diluzten puntuak, burgesia monopolistarenak dira.

Naastea sort-arazteko, au diote, ez dirala artu-emanik euki bear burgesia nazionalakin, egiazko sozialista reboluzioa, utsa, puroa, izan dadin. Ageri dago aien jokabidea: nola izango dituzte burgesia nazionalakin artu-emanik, faszismoakin alkarte objeliboa baldin ba daude? Noski ezetz.